

Ingeniaritza informatikako ikasleak Eusko Legebiltzarrean

2007/07/16

Goi Eskola Politeknikoko Ingeniaritza Informatikako 5.mailako ikasle eta irakasle talde batek, Eusko Legebiltzarra bisitatu zuen ekainean.

2004an MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta EUSKO LEGEBILTZARRAK hitzarmena bat sinatu zuten elkarlana bideratzeko eta geroztik e-Demokraziaren alorrean irakasle eta ikasle talde batek dihardu lanean.

Elkarlan honetatik, sortu zen bisita antolatzeko gogoia. Bisitaren helburua, ZABALIK, PARTE HARTU eta PARLAMAUTO proiektu berritzaileen informazio zabala izatea zen.

Bisitari hasiera emateko, Izaskun Bilbao, Eusko Legebiltzarreko Lehendakariaren agurra jaso zuten. Gero Eusko Legebiltzarreko Informatikako buru den Juan Luis Mazmelak, aurretik aipatutako proiektu berritzaileak erakutsi zizkien. Eta bukatzeko, Eusko Legebiltzarreko Protokolo buru den Elena Lopez de Aretxabaletaren eskutik Eusko Legebiltzarra bisitatu eta Osoko bilkurako une batzuk jarraitzeko aukera izan zuten.



Ingeniaritza informatikako ikasleak
Eusko Legebiltzarrean